

IN MEMORIAM JULIO CARO BAROJA (1914-1995)

1995ko abuztuaren 18an itzali zen Berako *Itzea* etxean Julio Caro Baroja jauna, euskaltzain ohorezkoa, 81 urterekin. Hil ezkilak isildu badira ere, deitorea ez, eta munduko hainbat zokotatik iristen ari dira oraindik.

Euskaltzain ohorezkoa, bai, eta merezi onez izendatu zuen Euskaltzaindiak maila honetarako 1979an, 1947an euskaltzain urgazle hautatu zuen gizona. Merezi onez, ezen Caro Barojak zorrotz eta tinko landu du gure kultura, eta oparo eta zabal aberastu.

Historiagilea zen, oroz gain, Julio Caro, eta garbi aitortu zuen hori, behin baino gehiagotan:

“Mi punto de vista es histórico-cultural, tanto o más que lingüístico” (1).

Hala ere, hizkuntzalaritzaren eta euskalaritzaren alorrek ekarpen mukuru zor diote. Ez zitzaizkion laket gramatikaren malkar latzak, ez zuten behin ere kilikatu hizkuntza teoriaren distira aldakorrek. Baina guztiz trebeki ikertu zituen Hispania zaharreko hizkuntzak, iberieraren idazkera —zehazkiago esan, idazkerak—, eta populu eta leinu ba-koitzaren nondik norakoak.

Latinak euskarari utzitako aztarna pisuari buruz egin zuen liburu bikaina Caro Barojak eta harekek eman zion, arrazoï osoz eman ere, ospe handia hizkuntzalarien artean. Liburuak titulu apala zuen: *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina*, eta Salamancako Unibertsitateak argitaratu zuen 1945ean. Meyer-Lübke, Schuchardt eta beste hizkuntzalari batzuen irakaspenak bere eginez eta hedatuz, erromatarren mintzoaren itzala gure hiztegiari eta gure izen berezietan noraino den nabarmena erakutsi nahi zuen egileak. Zenbaitek beltzuri egin zioten lan horri. Euskalduntasuna, garbitasuna, antzinatasuna eta nik ez dakit beste zenbat tasun galtzen zirela uste zuten, obra hari kasu —eta amore— emanaz gero. Urteak iragan ondoren, ordea, *Materiales...* erpin eta mugarri dela dakusagu, nahiz, gizalan guztiek bezala, denborak higatu. Ikerkuntza franko zuen oinarrian, izan ere, eta dotrina segurua aurkitzen zen orrialde haietan, garai hartan izan zitekeen neurrian. Gero, jakina, Mitxelena jaunak bere emaitza ederra kaleratu zuen, *Fonética histórica vasca*, batez ere, 1961an, eta puntu askotan Caroren ikusmoldea hobetu eta zuzendu.

Carok eta Mitxelenak, zalantzarik gabe, kezka bera zuten, besteak beste: Euskal Herria, bere nortasuna deusetan ere ukatu gabe, inguruko herrieekin lotzea. Hona Caroren hitzak:

(1) “Los estudios geográfico-históricos sobre el País Vasco y la dialectología” (1958). Ikus orain Lur argitaletxeak Caro Barojaren lanen argitaraldian, Donostia 1995, II, 345.

“Mi punto de vista es, en esencia, el de no apartar al vasco históricamente de la comunidad de pueblos de la Europa occidental; de no hacerle más Robinson de lo que en realidad es” (2).

Nola ez ekarri gogora Mitxelenaren hitzak, *Apellidos vascos* liburuaren 3. argitaraldian?:

“Además, si he de expresar francamente mi mayor deseo, quería y quiero poner en relación nuestros apellidos y topónimos con los de otras lenguas, ante todo con los de las vecinas” (3).

Zer esanik ez, latinarrekiko lotura horretan, galdera askok ez dute erabateko erantzun garbirik: *-ain*, *-ano*, *-ana* bukaerak, adibidez, arazo eta izkutu dira oraindik, nahiz funtsean Caro Barojaren azalpena onartu.



Julio Caro Baroja Oñatin, 1979ko azaroaren 11an, J. M. Barandiarani
Eusko Ikaskuntzak antolaturiko omenaldian

Hizkuntzekiko, eta bereziki euskararekiko, interes eta zaletasunak eraginik, beste lan eder bat ondu zuen Julio Carok bizpahiru urte lehenago: “Observaciones sobre la

(2) Ib., 345.

(3) *Apellidos vascos*, 3. argit., Donostia 1973, 238.

hipótesis del vascoiberismo considerado desde el punto de vista histórico”, *Emerita* aldizkarian argitaratua, 1942-1943an. José Vallejok eskatu zion lana, Centro de Estudios Históricos izan zeneko eta orduan Consejo Superior de Investigaciones Científicas zeneko Filología Klasikoaren Sailean harekin mintzatu ondoren. Egia esan, lanaren titularen azken parteak esparrua historiara mugatzen badu ere, hizkuntza ere da hemen ikergai, Schuchardten deklinabidea, tartean. Miresgarria da artikuluan Carok nola arakatu zituen iturri guztiak, eta iritziak oro eztabaidatu (4).

Larramendirenganako joera ere aipatu behar dugu Caroren euskararekiko lanetan. “Una nota al P. Larramendi” 1959koa da. Urte berekoa da Mitxelenaen *La obra del P. Manuel de Larramendi*, askoz ere luzeagoa. Urte batzuen ondoren, Carok beste lan bat argitaratu zuen andoaindarrari buruz, “¿Léxico perdido, léxico recuperado?” (5). Ongi zekien, izan ere, asmakeriez josia dagoela Larramendiren hiztegia, baina, beste askok ez bezala, uste zuen kontuan hartzekoa dela *Diccionario Trilingüe*-ko hainbat hitz jator eta benetako, geroztik desagertu edo zokoratu direnak.

Hitz eta esaeren bila, eta Menéndez Pidalen aspaldiko nahia beteaz, Nafarroako Forua aztertu zuen Julio Carok, eta *azagerriko, ozterate, gailurdiru, On bazendu abaria* ete besteri buruz idatzi, erdarazkoak edota erdaratikoak baztertu gabe, *escuraina*, adibidez. Beste hitz eta izen anitzi buruz eskertzekoa izango da betiko haren ekarpena. Aipa ditzagun hemen, zerrenda ez luzatzearren, gutxi batzuk: **uasconicus* (> *vascongado*), *uztarkide*, *Aresta*, *Nafarroa*, *Olite*, e.a. Maisu, zinezko maisu, ageri da Caro Baroja, historiaren ezagutza sakonak ematen maisutzaz. Horrek ez du esan nahi, jakina, puntu guztietan zuzen zebilela. Zientzia egiten zuen, eta zientziak, dakigunez, kritika du berekin. *Alava*-ren etimologian, demagun, beste iritzi bat nagusitu da geroztik, hots, < lat. *planum*, eta Picaud-en *blascli / nauarri* bikotean mugaz haraindikoak eta honaindikoak ulertu behar dela garbi dago (6).

Hizkuntza geografia ere landu zuen, neurri batean, ohar eta hausnarketa ugarirekin, beti ere historia lagun. Iduri luke, ordea, Caro Barojak uste zuela euskararen atzerakuntzaren arrazoa euskararen bertan bilatu behar zela, eta ez hizkuntzaz kanpo.

Uzkuur genuen, halaber, gure hizkuntzaren batzeaz. Gibelera, antzinako denboretara, beren gazi-gozeekin, begiratzea zuen atseginago, eta ez zeritzon daitekeena ez zuzena euskara batua deitzen dugunari. Bai, gibelerako soa zen Carorena hizkuntzaz denaz bezainbatean, eta Azkuez gero bederen arrunta izan den euskal ortografia ere ez du maiz aski erabiltzen, are gutxiago Arantzazuko Biltzarraren ondorengoa.

Baina erokeria litzateke horretaz, eta bereziki azken urteetan, idatzi zuenari muzin egitea. Bat nator ni, adibidez, eta oso bat, Caro *el vasco ritual* delakoaren aurka mintzatzan zenean, eta bat eskatzen zuenean euskararen suztatzean gizakiak berezkoa duen estetika sena:

“Hay que cargar al vasco del contenido estético en primer término, y de cierta profundidad, en segundo. Pero esto no se hace a base de áridas gramáticas y

(4) Ikus lan hau Lur argitaletxearen argitaraldian, I, 81-120.

(5) Ikus E. Knörr (ed.), *Homenaje a Odón de Apraiz*, Gasteiz 1981, 107-116. Lur-eko argitaraldian, V, 199-204.

(6) Ikus Mitxelena, *Textos arcaicos vascos*, 1. argitaraldia, Madril 1964, 49. Berdin 2.ean, Donostia 1990.

de libritos de ejercicios poco amenos impuestos a los niños. Tampoco de (7) otros que se usan en escuelas empingorrotadas llenos de chascarrillos de taberna y de obscenidades que hace años hubieran escandalizado a todo el elemento nacionalista del país. Esto se hace a base de arte, de poesía, de teatro, de música cantada, de prosa atractiva. Los artistas creadores debían ser los que tuvieran la iniciativa, no los maestros de escuela” (8).

Euskal Herriari atxikia zegoen Caro Baroja, eta zion maitetasuna neurritz gainekoa zen. Madrileko Agrupación de Cultura Vasca-ko kidea izan zen, Odriozola, Busca Isusi, Quadra Salcedo eta besterekin batera. Areago, garai batez euskal politikak erakarri zuen: “Sentí por un momento incluso una veleidad vasquista de orden político”.

Karlistek eta kidekoek Barojatarrekiko izan zuten gorrotoa atzean gelditu edo zen, eta giroa ez zitu. Pentsaezina zen, demagun, Azkuek osaba Pforekin egin zuena egitea, hots, atzerrira joan zedin eskatzea, baita eleberrigilearen erantzuna ere Azkuez, “mosca carnaria del vascuence”. Gerra ondoko lehen urte ilun haietan umorez erantzuten zuen familiako liberaldasuna bekatu gisa leporatzen ziotenean:

—“Conque Baroja, ¿eh?”

—Sí, señor, gracias a Dios y a su Divina Providencia.”

Beste aro bat etorri zen gero. Baina haren esperantzak errekaratu ziren, inoiz baikorra ez zen Carorengan. Atsekabez zekusan intolerantzia eta indarkeriaren hedatzea, orain beste kolore batzuekin. Eta tristuraz zekusan askatasuna berreskuratuarren lehengo gaitzek irauten zutela, eta beste zenbait eransten: administrazioaren hazkunde neurri-gabea, bazter ederren hondamendia, e.a. Ez zuen etsitzen, hala ere, eta bere mezua helarazten saiatu zen bizi-arnasa eta buru-argitasuna izan zuen bitartean:

“...hay muchas cosas que salvar en este país en paz, en armonía y en hermandad. Y la única posibilidad de creer en unidades, identidades y cosas por el estilo es cultivar el amor” (9).

Betiko atsedenean gerta dadila Julio Caro Baroja, jakintsua, euskaltzalea, gizona.

E. Knörr

(7) “en otros” dio, oker, testuak.

(8) *El laberinto vasco*, Donostia 1984, 116.

(9) *Ib.*, 125.